

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntza Departamentuak milioi bat euro bideratu ditu 0 eta 3 urte bitarteko bost zentro eraikitzeko

Haur-eskolak Altsasun, Arbizun, Ezkarozen, Lerinen eta San Adriánen daude

Martes, 19 de abril de 2011

Hezkuntza Departamentuak aurtan 1.027.459 euro bideratuko ditu Altsasun, Arbizun, Ezkarozen, Lerinen eta San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko zentroak eraikitzeko.

Zenbateko horretatik 414.634 euro San Adriánego Udalari emango zaizkio. Udallerri horretan bost unitateko zentro bat eraikitzen ari dira, eta aurreikuspenen arabera, datorren irailean irekiko ditu atea.

281.065 euro Arbizuko Udalari emango zaizkio, herrian sei unitateko haur-eskola eraikitzeko. Lanak ezarritako epeen arabera garatzen ari dira. Hori dela eta, aurreikuspenen arabera, zentroak irailean irekiko ditu atea.

Altsasuko Udalak 203.065 euro jasoko ditu zortzi unitateko zentroa eraikitzeko, eta Leringo Udalak, 85.476 euro. Azken eraikin hori, hiru unitatekoa, irekita dago gaur egun.

Amaitzeko, Ezkarozeko Udalari 43.217 euro emango zaizkio bi unitateko zentroa eraikitzeko. Lanak aurreratuta daude. Aurreikuspenen arabera, ikastetxeak 2011ko irailean irekiko ditu atea.

Hezkuntza Departamentuak udalek sustatutako 0 eta 3 urte bitarteko zentroen eraikuntza diruz laguntzen du, gehienez diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren %65 emanaz (gehienez %95 Ezkarozeren kasuan, Piriniotako Garapen Planaren barruan baitago).

Laguntza horiek zenbait urtetan zatitu eta ematen dira. Lerinek eta Ezkarozek diru-laguntzaren %100 jaso dute, 97.091 eta 365.074 euro hurrenez hurren; Arbizuk eta San Adriánnek %55,14 jaso dute, hau da, 358.400 eta 528.721 euro hurrenez hurren; eta Altsasuk %25 jaso du, hau da, 203.065 euro.



Haurrak 0 eta 3 urte bitarteko zentro batean jaten.